



HEDATZE programa

2022/06/23

Aurkibidea

1. ARMENTIA IKASTOLAREN EZAUGARRIAK	2. orria
2. HEDATZE PROIEKTUAREN HELBURU OROKORRAK	5. orria
3. 2022-2023 IKASTURTEKO LEHEN HIRUHILEKORAKO JARDUEREN ESKAINTZA	6. orria
4. JARRAIPEN ETA HOBEKUNTZA BATZORDEA	11. orria
5. IRAKASTORDUTEGI PROPOSAMENA	13. orria
6. IKASLEEN ETA FAMILIEN PARTE HARTZEA SUSTATZEKO ESTRATEGIAK	16. orria



1. ARMENTIA IKASTOLAREN EZAUGARRIAK

1.1 Ezaugarri orokorrak

Armentia Ikastola 1230 ikaslek, 781 familiak eta 95 profesionalak osatzen dugu. Hezkuntza-kooperatiba gara eta familiak eta langileak gara berau sostengatzen dugunok. Urte bateko haurrak dira gure ikaslerik gazteenak eta hamazortzi urte bitarteko hezkuntza eskaintzen diegu. Hortaz, 1-18 da gure eskaintza eta ibilbide horretan gure ikasleen irteera-profila dugu ardatz.

Beste 109 ikastolarekin batera Euskal Herriko Ikastolen Elkarteko kide gara. Hezkuntza-eredu propioa daukagu, euskal kurrikuluma dugu oinarri eta ikasmaterial eta planteamendu pedagogiko propioak partekatzen ditugu gainerako ikastolekin.

Gure ikastola Gasteizko guraso batzuek sortu zuten 1992. urtean, beraien seme-alabentzako hezkuntza euskalduna eta berritzailea nahi zutelako. Harrezkero, auzolanean joan gara ikastola eraikitzen gaur egungo proiektua errealitate bilakatu arte.

1.2 Hezkuntza baloreak

Ikaslea da gure hezkuntza-proiektuaren oinarria, ardatza eta erdigunea.

Armentia Ikastolan 1 urterekin hasten dute ibilbidea ikasle gazteenek eta 18rekin bukatzen dute zaharrenek. Ibilbide honen abiapuntua IKASLEAREN IRTEERA PROFILA da. Beraz, Ikastolan sartzen denetik helburu hauek betetzera bideratzen ditugu gure indarrak eta ahaleginak. Helburu hau lortzeko ezinbestekoa da adin edo etapa bakoitzean ikasleak dituen ezaugarriak kontuan hartzea.

Hau honela izanik Armentia Ikastolako hezkuntza baloreak hurrengo alorretan definitzen dira:

- **Euskal Curriculumak**

Euskal kulturaren transmisioari erreparatzen dio Euskal Curriculumak eta bi asmo ditu: Euskal Herriaren eta munduaren kultur ondarearen erreferentzia komunak partekatzea eta eleaniztasun eta kulturartekotasun planteamenduak integratzea, are gehiago euskal gizartea eleanitza eta kulturantza izanik.

- **Konpetentzia orokorrak**

Oinarrizko konpetentzia orokorrak lantzerako bideratutako ikasketa-prozesua. Egun honako hauek dira zehaztuta dauden konpetentzia orokorrak: komunikatzen ikasi,

pentsatzen eta ikasten ikasi, egiten eta ekiten ikasi, norbera izaten ikasi eta elkarrekin bizitzen ikasi.

- **Integrazioaren pedagogia**

Integrazioaren pedagogiaren bidez, benetako egoera esanguratsuen aurrean jarrita, ikasleek egoera horietan behar dituzten baliabideak bilatzen eta erabiltzen ikasten dute. Irtenbideak aurkitzen saiatu, bakarrik eta taldean moldatu, arazoaren irtenbideak erdietsi eta ikasi dutena egoera berrietan aplikatzen dute.

- **Euskara**

Lantzen ditugun hizkuntza guztiak modu berean jorrotzen ditugu, erabileran oinarritutako ikas-irakaskuntza prozesuaren bitartez, horrela euskararen ardazturiko hizkuntzen trataera bateratua bultzatuz.

- **Konpetentzia digitala**

Ikaslea hiritar digital arduratsua eta trebea izatea dugu helburu eta horretarako digitalizazio-prozedurak ikas-arloetan integratuta daude, erabileran trebatuz ikasteko. Arloetan integratzen dugu konpetentzia digitala.

- **Eskuhartze kooperatiboa**

Pertsonok besteekiko harremanetan ikasten dugula sinisten dugu, bai helduarekiko baina baita parekidearekiko interakzioan ere eta zentzu honetan ulertzen dugu eskuhartze kooperatiboa, elkarrengandik ikasteko duten gaitasunean. Gure jardunaren helburua eskuhartze hori gela egoeretan gauzatzea da.

1.3 Ikasleen irteera profila

Honako hauek dira Armentia Ikastolako ikaslearen irteera-profila osatzen duten ezaugarriak:

- **EUSKALDUN ELEANITZA:** Beste hizkuntza batzuk jakinda, euskara egunerokotasunean biziko duen pertsona.
- **KOMUNIKATZAILEA:** Hizkuntza dramatikoa, artistikoa, musikala, plastikoa... egoki erabiltzen duen pertsona.
- **KRITIKOA:** Informazioa modu kritikoan eta iritzi propioa eraikitzeko gai den pertsona.

- **SORTZAILEA:** Bizitzak planteatzen dizkion erronkei aurre egiten dakien pertsona.
- **AUTONOMOA:** Edozein egoeratan modu eraginkor batean erabakiak hartzeko gai den pertsona.
- **ZORIONTSUA:** Bizitzari ikuskera positiboz begiratzen dion pertsona.
- **KONPROMETITUA:** Norberarekiko, taldearekiko eta inguruarekiko modu arduratsu, aktibo, positiboan eta errespetuz jokatzeko duen pertsona.
- **PERTSONA ONA:** Bere lagunak lagun izango den pertsona.
- **PRESTATUA:** Ikasten jarraitzeko edo lanean hasteko behar bezain ondo prestatutako pertsona.

2. HEDATZE PROIEKTUAREN HELBURU OROKORRAK

Hauek dira Hedatze proiektuarekin Armentia Ikastolak lortu nahi dituen helburu nagusiak:

- Gure ikasleen hezkuntza kalitatea areagotu.
- Eskola-denboraren kudeaketa eredu berriak erakutsi, erabili eta ebaluatu.
- Ikastolaren ekitatea hobetzen lagundu eta horretarako jardueren eskaintza anitza egin:
 - Curriculum indartzen neurriak.
 - Indartze neurri kulturalak.
 - Indartze neurri sozialak.
 - Indartze neurri emozionalak.
- Ikasleen konpetentzien lorpen maila indartu.
- Eskola emaitzen hobekuntza sustatu.
- Ikastolako bizikidetza eta hezkidetza positiboa indartu.
- Euskararen erabilera sustatu.
- Ikasleen autonomia landu.

3. 2022-2023 IKASTURTEKO LEHEN HIRUHILEKORAKO JARDUEREN ESKAINTZA

3.1 Jarduerak

- **INDARTZE AKADEMIKOAK**
 - Zientzia eremurako indartzea.
 - Eremu sozio-linguistikoa indartzea.
- **INDARTZE OSAGARRIAK**
 - Bizikidetzeta eta Hezkidetzarako indartzea.
 - Ikaslearen autonomia eta ikas prozesurako baliabideen lanketa (ikas teknikak).
 - Euskara eta Euskal Kultura sustatzeko jarduerak.
 - Ikaslearen egoera emozionala kudeatzeko jarduerak.

3.2 Lehen hiruhileko jardueren antolaketa

3.2.1 Indartze akademikoa

- **Eremu sozio-linguistikoa (euskara, gaztelania, ingelesa, frantsesa, latina, gizarte eta ekonomia)**
 - **Helburuak:**
 - Arlo pendienteak dituzten ikasleei lagundu.
 - Zailtasunak dituzten ikasleei lagundu.
 - Arloko zalantzak argitu.
 - **Lorpen adierazleak:**
 - Irakasgai hobetzen joatea.
 - Konpetentzien lorpen mailan aurreratzea.
 - Arloa gainditzea.
 - **Baliabideak eta espazioak:**
 - Norbanako planak.
 - Ikasgelak.
 - Testuliburuak.
 - EKI
 - Material osagarria.
 - **Arduradunak:** arloko irakasleak.

- **Eremun zientifiko-teknologikoa (matematikak, fisika-kimika, biologia eta geologia, teknologia)**
 - **Helburuak:**
 - Arlo pendienteak dituzten ikasleei lagundu.
 - Zailtasunak dituzten ikasleei lagundu.
 - Arloetako zalantzak argitu.
 - **Lorpen adierazleak:**
 - Irakasgai hobetzen joatea.
 - Konpetentzien lorpen mailan aurreratzea.
 - Arloa gainditzea.
 - **Baliabideak eta espazioak:**
 - Norbanako planak.
 - Ikasgelak.
 - Testuliburuak..
 - EKI
 - Material osagarria.
 - **Arduradunak:** arloko irakasleak.

3.2.2 Indartze osagarriak

- **Bizikidetzaren eta Hezkidetzarako indartzea.**
 - **Helburuak:**
 - Ikastolan parekidetasuna eta LGBT+ gaietan ikasleen kontsientzia garatu.
 - Harreman parekideak sustatu.
 - Elkarrekiko errespetua bultzatu.
 - Berdintasun batzordea berreskuratu.
 - Hezkidetzaren behatokia sortu.
 - **Lorpen adierazleak:**
 - Berdinkideen arteko harremanak hobetzea.
 - Jeneroaren/identitatearen errespetua lortzea ikasgeletan.
 - Estereotipo eta rolen apurketa.
 - Berdintasun batzordeak urtean zeharreko dinamika/ekintza ezberdinak diseinatu eta aurrera eramatea.
 - Behatokiaren erabilera eta balorazioa jasotzea.
 - **Baliabideak eta espazioak:**

- Ikasgelak.
 - Material osagarria.
 - Hiruki larroxa lantaldea.
 - Ikastolako Hezkidetza plana.
 - **Arduradunak:** Hiruki larroxako kide bat, ikasle ordezkariak, irakasleren bat, batxilergoko ikasleak eta familiak.

- **Ikaslearen autonomia eta ikas prozesurako baliabideen lanketa (ikas teknikak)**
 - **Helburuak:**
 - Ikasketa-prozesua eraginkorra izateko hainbat teknika ezagutu eta erabili.
 - Norbere indargune eta ahuleziak ezagutuz, autorregulazio prozesuak egin eta beharrezko doikuntzak aplikatu.
 - **Lorpen adierazleak:**
 - Teknika hauek arrakastaz erabiltzea eta emaitzetan eragitea.
 - Autorregulazioetan ikusitako zailtasunei aurre egiteko egindako doikuntzek arrakasta izatea.
 - **Baliabideak eta espazioak:**
 - Ikas-teknika ezberdinak.
 - Ikasgelak.
 - Testuliburuak.
 - EKI
 - Material osagarria.
 - **Arduradunak:** aholkularia eta orientatzailea.

- **Euskara eta Euskal Kultura sustatzeko jarduerak**
 - **Helburuak:**
 - Euskara eta euskal-kultura sustatu.
 - Euskaraldia ikastolan txertatu.
 - Euskara ikasle eta familien egunerokotasunean txertatu.
 - Euskal kulturarekin erlazionatzen diren ekintzak bideratu.
 - Euskara batzordeak ikastolan indartu.
 - HizProk ikastolan eragin.
 - **Lorpen adierazleak:**
 - Gasteiz eta inguruan antolatzen diren euskal kulturgintzako ekintzetan parte hartzea.

- Euskaraldian sortutako dinamiketan parte hartzea.
 - Ikasle eta familien harremantzeko hizkuntza euskara izateko pausuak ematea.
 - Ikasturtean zehar Euskararekin erlazionaturiko ekintza edo dinamikak aurrera eramatea. Euskara batzordeko urteko plana aberastea.
 - HizProren urteko plana betetzea.
 - **Baliabideak eta espazioak:**
 - Ikasgelak.
 - Ikus-entzunezko baliabideak.
 - IKT
 - Euskaraldiak sorturiko materialak.
 - Euskara batzordeak sortutako materiala.
 - Kanpoko euskal eragileen materiala/euskarriak.
 - **Arduradunak:** Hizpro arduraduna, gurasoak, Euskal kulturgintzako eragileak, Euskara batzordeko dinamizatzailea eta batxilergoko ikasleak..
- **Ikaslearen egoera emozionala kudeatzeko jarduerak.**
 - **Helburuak:**
 - Ikasleek emozio ezberdinak identifikatu.
 - Ikasleei arlo emozionala zaintzeko eta kudeatzeko tresnak eskaini.
 - **Lorpen adierazleak:**
 - Egunerokotasunean ikasleek bizi dituzten egoerei (frustrazioa, urduritasuna, antsietatea...) erantzun egokia ematea.
 - Sentitzen dutenari hitza jartzeko gai izatea.
 - Emozio horiek bideratzeko gaitasunean aurrera egitea.
 - **Baliabideak eta espazioak:**
 - Ikasgela handia: esterilak, kuxinak...
 - Gai ezberdinen inguruko tailerrak.
 - Ikus-entzunezko baliabideak.
 - **Arduradunak:** Erakunde ezberdinetako arduradunak eta aholkularia.

3.3 Lehen hiruhilekorako egutegia

Hurrengo taulan hamabostaldi bateko proposamena zehazten da, taula hau hamabostero errepikatuko litzateke iraila, urria eta azaroan, astero 7 ordu proposatzen ditugularik. Lehenengo hiruhileko **Hedatze proiektuaren jarraipena eta ebaluazioa abenduaren 13an** egingo genuke eta **bigarren hiruhilabeteko plangintzaren aurkezpena abenduaren 20an** izango litzateke.

Astelehena	Asteartea	Asteazkena	Osteguna	Ostirala
<p>15:30 - 16:30 Eremu Sozio Linguistikoa Indartzea</p> <p>16:30 - 17:30 Eremu Zientifiko - Teknologikoa Indartzea</p>	<p>15:30 - 16:30 Eremu Sozio Linguistikoa Indartzea</p> <p>15:30 - 16:30 Euskara eta Euskal Kultura</p>	<p>15:30 - 16:30 Eremu Zientifiko - Teknologikoa Indartzea</p> <p>16:30 - 17:30 Egoera emozionala indartzea</p>	<p>15:30 - 16:30 Zalantza eguna: Eremu Zientifiko - Teknologikoa eta Eremu Sozio Linguistikoa</p>	
Astelehena	Asteartea	Asteazkena	Osteguna	Ostirala
<p>15:30 - 16:30 Eremu Sozio Linguistikoa Indartzea</p> <p>16:30 - 17:30 Eremu Zientifiko - Teknologikoa Indartzea</p>	<p>15:30 - 16:30 Eremu Sozio Linguistikoa Indartzea</p> <p>15:30 - 16:30 Ikaslearen autonomia eta ikas prozesua</p>	<p>15:30 - 16:30 Eremu Zientifiko - Teknologikoa Indartzea</p> <p>16:30 - 17:30 Bizikidetzeta eta Hezikidetzeta</p>	<p>15:30 - 16:30 Zalantza eguna: Eremu Zientifiko - Teknologikoa eta Eremu Sozio Linguistikoa</p>	

4. JARRAIPEN ETA HOBEKUNTZA BATZORDEA

4.1 Batzordeen osaketa

- **Indartze akademikoaren** jarraipen eta hobekuntza batzordea:
 - Eremu Sozio-linguistikoko irakaslegoaren ordezkari bat.
 - Eremu Zientifiko-teknologikoko irakaslegoaren ordezkari bat.
 - Orientazio departamentuko partaide bat.

- **Indartze osagarriak** jarraipen eta hobekuntza batzordea:
 - Euskara Batzordeko koordinatzailea.
 - HizPro-ko arduraduna.
 - Etapako irakasle bat.
 - Ikasleen ordezkari bat.
 - Gurasoen ordezkari bat.
 - Berdintasun batzordeko ordezkaria.
 - Aholkularia eta orientatzailea.
 - Hiruki larroxeke kidetako bat.
 - Jarduera desberdinak antolatu dituzten eragileak.

4.2 Batzordeen funtzionamendua

- Indartze akademikoaren atalean garatutako saioen jarraipen eta hobekuntza batzordea:
 - Ebaluaketa bakoitzaren amaieran bilduko da.
 - Indartze akademikoan aurrera eramandako jarduera, dinamika desberdinen balorazioa egingo dute eta behar diren horietan hobekuntzak proposatuko dira. Balorazioa egiterakoan honako informazioa edukiko da kontuan:
 - Indartze saio eta zalantza saioetan parte hartutako irakasle, ikasle eta parte hartu duten familien ekarpenak.
 - Indartze saio eta zalantza saioetan parte hartu duten ikasleen arloko irakasle eta tutoreen ekarpenak.

- Proiektuaren helburuetan adierazitako lorpen adierazleen azterketaren ondorioak.
 - Ikasleen arlo ezberdinetako lorpen mailaren inguruan ebaluazio bileretan jasotako balorazioak.
 - Orientazio departamentuko ekarpenak.
- Indartze-osagarrietan bideratutako jardueren jarraipen eta hobekuntza batzordea
 - Ebaluaketa bakoitzaren amaieran bilduko da.
 - Indartze- osagarriak bideratu jarduera eta dinamika desberdinen balorazioa egingo da. Balorazioa egiterakoan honako informazioa edukiko da kontuan:
 - Jardueretan parte hartutako hezkuntza komunitateko kideen ekarpenak.
 - Jardueren antolatzaile edo arduradunen ekarpenak.
 - Proiektuaren helburuetan adierazitako lorpen adierazleen azterketaren ondorioak.

5. IRAKASTORDUTEGI PROPOSAMENA

5.1 Hedatze Proiektua onartzen bada DBH eta Batxilergoko ikasleen ordutegia

Armentia ikastolan 2017 urtetik, bai DBHn eta bai Batxilergoan ordutegi jarraia dugu. Beraz, gaur egun indarren dugun ordutegia mantenduko genuke.

DBH

	Astelehena	Asteartea	Asteazkena	Osteguna	Ostirala
8:15 - 9:10					
9:10 - 10:05					
10:05 - 10:20	JOLASORDUA 1				
10:20 - 11:15					
11:15 - 12:10					
12:10 - 12:30	JOLASORDUA 2				
12:30 - 13:25					
13:25 - 14:20					
14:20 - 15:30	BAZKALORDUA				
15:30 - 16:30	HEDATZE	HEDATZE	HEDATZE	HEDATZE	
16:30 - 17:30	HEDATZE		HEDATZE		

BATXILERGOA

	Astelehena	Asteartea	Asteazkena	Osteguna	Ostirala
8:15 - 9:10					
9:10 - 10:05					
10:05 - 11:00					JOLAS 1
11:00 - 11:15	JOLASORDUA 1				
11:15 - 12:10					
12:10 - 13:05					JOLAS 2
13:05 - 13:25	JOLASORDUA 2				
13:25 - 14:20					
14:20 - 15:15					

5.2 Hedatze Proiektua onartzen ez bada DBH eta Batxilergoko ikasleen ordutegia

Armentia Ikastolako irakaslegoak DBHn eta Batxilergoan ematen ditu klaseak. Hedatze proiektua onartzen ez bada irakasle hauen ordutegietan eragina izango luke, tarteko denbora hilak...

Armentia ikastolako jantokia HH, LH, DBH eta Batxilergorako eskeintzen den zerbitzua da. Ordutegi aldaketa honek ikastolako jantoki zerbitzuaren gestioan ere kalteak suposatuko lituzke txandak antolatzeko orduan...

Hori dela eta, proiektua onartua ez bada ordutegi eraginkorra eta aurrera eramango genukeena ondorengo hau litzateke:

DBH - Astelehen, astearte eta ostegun

	Astelehena	Astearte	Osteguna
8:15 - 9:10			
9:10 - 10:05			
10:05 - 10:35	JOLASORDUA 1		
10:35 - 11:30			
11:30 - 12:25			
12:25 - 14:30	BAZKALORDUA		
14:30 - 15:30			
15:30 - 16:30			

DBH - Asteazken eta ostirala

	Asteazkena	Ostirala
8:15 - 9:10		
9:10 - 10:05		
10:05 - 10:20	JOLASORDUA 1	
10:20 - 11:15		
11:15 - 12:10		
12:10 - 12:30	JOLASORDUA 2	
12:30 - 13:25		
13:25 - 14:20		

BATXILERGOA

	Astelehena	Asteartea	Asteazkena	Osteguna	Ostirala
8:15 - 9:10					
9:10 - 10:05					
10:05 - 11:00					JOLAS 1
11:00 - 11:15	JOLASORDUA 1				
11:15 - 12:10					
12:10 - 13:05					JOLAS 2
13:05 - 13:25	JOLASORDUA 2				
13:25 - 14:20					
14:20 - 15:15					

6. IKASLEEN ETA FAMILIEN PARTE HARTZEA SUSTATZEKO ESTRATEGIAK

6.1 Indartze- akademikoan parte-hartzea

Helburu eta lanketa antzekoak izan arren, eremu honen barruan bi azpitalde ditugu. Batetik, aurreko ikasturteetako arlo pendienteak dituzten ikasleen parte-hartzea eta bestetik, ebaluazioetan zehar irakasgairen bat gainditzen ez dutenen parte-hartzea.

Ebaluazio saio bakoitzean klaustroak ere erabaki dezake errefortzu programa hauetan zailtasunak dituzten beste ikasle batzuen parte hartzea, beti ere, gurasoen adostasunarekin.

6.2 Indartze- osagarrian parte-hartzea

Aurretiaz jakinda kudeaketa berri honek erronka bat suposatzen duela eta ekintza hauetan parte-hartzea ikasleen eta familien esku dagoela, antolatuko diren ekintzetan parte-hartzea lortzekoeko, prozedura sistematiko bat jarraituko dugu, urrats hauetan oinarrituta:

- Ikasturte hasieran mailako guraso ordezkariak ikastaldeekin egingo diren kurtsoko bilera desberdinetan proiektu hau azaldu eta familien laguntza eskatuko dute hezkuntza komunitatearen kideen parte-hartzea bermatzeko.
- Ikasleei galdetegi bat pasatuko zaie indartze osagarrietan parte hartzea sustatzeko helburuarekin. (Haien interesetako ekintzak/dinamikak zehazteko helburuarekin.
- Jarduerak eskaini baino lehenagoko asteetan, tutoretza saioetan, ikasleei jardueren nondik norakoak jakinarazi eta azalduko zaizkie; bertan jasoko dituzten ikaskuntzak ezagutzeak beraien parte hartzea sustatuko duelako.
- Hezkuntza komunitate osoari Hedatze plana zabalduko zaio: ArmentiBerri webgune eta albiste buletinen bitartez.